

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

ARAMAIOKO UDALA

2016ko laugarren bihilabetealdiari dagokion etxerako ur hornidura, estolderia eta zabor bilketa zerbitzuaren tasaren errolda, jendaurreko erakusketa eta ordainaldia

Etixerako ur hornidura, estolderia eta zabor bilketako zerbitzuaren tasaren errolda, 2016ko laugarren bihilabetealdiari dagokiona, jendaurrean jartzen da, iragarki hau ALHAOn argitaratzen den hurrengo egunetik kontatzen hasi eta 15 laneguneko epe barruan interesdunek aztertu eta egokitzat jotzen dituzten erreklamazioak Udal bulegoetan aurkeztu ahal izateko.

Aipatutako epean erreklamaziorik aurkeztuko ez balitz, errolda behin betirako onartuko da.

Erreziboak ordaintzeko epea, lekuak eta medioak ondokoak dira:

Epea: 2016ko azaroaren 28tik 2017ko urtarrilaren 27ra, biak barne.

Helbideratutako erreziboak, baimendutako finantza erakundeetan eta zergapekoak agindutako kontu korrontean zordunduko dira egun honetan: 2016ko abenduaren 23an.

Helbideratu gabeko erreziboak, ostera, zergapekoak adierazitako zerga-helbideetara bidaliko ditugu, eta Udalak dauzkan finantza entitate kolaboratzaileetako bulegoetan (Kutxabank eta Euskadiko Kutxa) egin beharko da ordainketa.

Borondatezko epean zorra ordaintzen ez bada, premiamendu prozedura betearazleari ekingo zaio eta fase horri dagokion errekarguak, berandutze interesak, eta hala badagokio, kostuak gehituko zaizkio hasiera zenbatekoari.

Aramaio, 2016ko urriaren 25a

Alkatea

LIERNI ALTUNA UGARTE